## PROMETEO

Haztamuka, pausoz pauso aztarna bila
jainkoen argia gizonontzat ohostu nahiz
iluntasunean. Ahaleginaz
hustu zaizu, izerditan, odola,
zartatu ezpain gazituak,
aurpegi unatuaren desertuko
bioleta eriak.

Harribitxi desirakoi egin zaizu
hareeta kixkalgarrietan aurreranzko
metro bakoitza,
hotzikara-itsaso eremua
eremu hotzikara-itsasoa,
bereiztezina bata eta bestea
zuk jainkoak eta gizona
nahiko zenituzkeen bezala.

Zaude erne, Prometeo, jainkoak jeloskorrak
dira eta heuren zeruan sortuniko lainobera
haizetsuentzat ez dute nahi izaten
beste edonoren eskuetan kriseilua.
Zaude erne, hurbiletik dakusat
jira biraka arranoa,
hurbilagotik oraindik jainkoen argi iheskorrari
islada izutia damaion labain zorrotza.

Zaude erne, Prometeo, itzul zaitez,
jainkoen itsas hondoan eta zeruan bizi omen da egia;
gure lurrean, iluntasunean gaudenez,
sofrimendu beltza.
Zaude erne, hobira zaitez gauean,
ilargiak behintzat goza dezan zure lurra.

Patxi Ezkiaga

### PROMETEO

*A tientas, paso a paso buscando huellas, / queriendo robar la luz de los dioses para los hombres / en la oscuridad. Se te ha vaciado a golpe de sudor / la sangre en el empeño, / se te han agrietado los labios salinos, / violetas macilentas en el desierto / de la cara cansina. / En los arenales ardientes / se te ha hecho joya deseable / cada metro de avanzada, / mar de escalofríos el desierto / desierto de escalofríos el mar, / indivisibles el uno y el otro / como tu quisieras / a hombres y a dioses. / Alerta, Prometeo, que los dioses son celosos / y no quieren el candil en manos de ningún otro / para las nieblas en viento / surgidas en su cielo. / Alerta, Prometeo, que veo cercano / y en círculos al águila, / más cercano todavía el cuchillo / en tímido reflejo / a la luz fugitiva de los dioses. / Alerta, Prometeo, regresa, / dicen que la verdad vive en el fondo del mar de los dioses / y en su cielo; / en nuestra tierra, pues estamos en oscuridad, / negro sufrimiento. / Alerta, entiérrate en la noche, / para que al menos la luna endulce tu tierra.*